ASTEKARIA - 2010eko martxoaren 5ean - XIII. urtea - Usurbil, 399. zenbakia

# Noaua!!

www.noaua.com



Xabier Carbayeda, 30 urte txirrindularitzaren munduan



Parte hartzea %70etik gorakoa izan zen

# Atez atekoa, bozkatuena

Usurbil
gure etxea. gure herria. gure planeta.

# ESKERRIK ASKO!

Iragarkietan atez atekoaren alde agertu diren norbanako eta eragile guztiak • Taldekako argazkietan bildutakoak: zubietarrak, atxegaldekoak, agiñarrak, langileak, bertso eskola, kuadrilak, irakasleak, kantu taldea, eskubaloiko jokalariak, futboleko neskak, bilgunea,... • Kantan parte hartu duten haur, musikari, teknikariak eta Jaione Eskudero • Porrotx • Haritz Harreguyren estudioa • Haritz Harreguy, Ixaak Arruti, Antton Aranburu eta "Olasa" • Desegin, Odolaren mintzoa, Despervicio • Txitxardin Beltxa, Patri, Txiriboga, Aginaga Sagardotegia, Artzabal, Bordatxo, Zendoia, Irrati eta Izagirreko langileak • Martxelo garraioak ,Mur Errotulazioak, Ibai Arrieta argazkilaria, Dultzaineroak, txistulariak, bertsolariak, Txerriki, Zeramika taldea • Errifak, materiala eta bonoak erosi dizkiguzuenak • Beste herrietatik babesa ematera inguratu zaretenak • Kanpainan AABren alde parte hartu duzuen guztiak • Atez ateko bilketaren alde bozka eman duzuen guztiak • eta ziur, hemen aipatzea ahaztu zaizkigun beste hainbat

ATEZ ATE! dudipe

www.dudipe.info

ATEZ ATE DUDIPE! BILGUNEA




antenas Telemar

28* egun falta dira!!!

Kate batzuen emisio analogikoa lehenago kentzen joango dira (datozen egunetan)

tdt



elkano kalea 13 HERNANI

Tlfnoa. 943 55 33 99
info@antenastelemar.com

DIGITAL+

Albistea iruditan !!

# Igande honetako elizkizuna berezia izango da

2008an 50 urte bete zituen apaiz lanetan. Denbora horren erdia Usurbilen egin du. Jubilatua zegoen arren, apaiz lanetan jarraitu du orain arte. Laster Donostiara doa, seminarioko egoitzara. Atseden hartzeko garaia heldu zaio. Dena den, tarteka gure artera etortzeko asmoa du. Juan Aldasoro apaizaz ari gara hizketan.

Hori dela eta, igande honetako elizkizuna berezia izango da. Herriaz eta Usurbilgo Salbatore parrokiaz agurtzeko aukera izango du Juan Aldasorok, urtetan apaiz izandakoak. 11:30ean hasiko den meza elebiduna izango da.

Mezaren ondoren, mokadua izango da parrokian.



Juan Aldasorok 50 urte baino gehiago egin ditu apaiz lanetan. Horren erdia, gure herrian.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

PLENOKO AZKEN ERABAKIAK — 5. Or.
KRONISTAK KALEJIRAN — 6. Or.
ITZALALDI ANALOGIKOA BADATOR... — 8. Or.
HERRI GALDEKETAREN EMAITZAK — 10. Or.

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!! EUSKARAZ
Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

ARRANDEGIA PELLO
Puntapax Kalea,7
Tlf 36 21 64
USURBIL

ERRAZKIN
Igeltseritza S.L.
Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679
K./ Nagusia 47. Behea A.
20170 USURBIL

KALITATEKO EUSKAL OKELA
CARNE DE VACUNO DE CALIDAD DEL PAIS VASCO
Beheko kalea, 4
Telf: 943 36 57 42

ALKORTA
AUTOZERBITZUA
Frutak
Barazkiak
Etxeko produktuak
Izoztuak



Maialen Unanue

# Demokratikoki natorkizue

Demokraziaz hitz egiten da albistegietan, legeetan, kalean. Hauteskundeak ditugu, nori bozkatu daukagu. Demokraziaren alde teoriko perfektuaz nabil hizketan.

Nik zuri ematen dizut botoa, agintetik edo oposiziotik zuk emandako hitza bete dezazun, mikrofonoetatik aldarrikatzen zenuen leialtasun hura badela jakin dezadan. Bide horretatik soilik izan baitezaket konfiantzarik politikariekin.

Ez dut uste arlo politikoan gauzak aurrera egin dezaten nahikoa denik lau urtean behin izaten den igande batez goiz jaiki eta bozkatzera joatea. Gure aktibitate politikoak horretara mugatua egon behar duela irakatsi digute. Kontuan hartzen badugu funtzio hau parte hartzearen alderdi bat besterik ez dela, eta arrazoia edozein delarik ere, badela inoiz bozkatu ez duen jendea, zer da lortzen duguna?

Alde batetik, pentsa daiteke merezi duguna daukagula. Hau da, herritarren parte hartzea baxua bada, guztiontzat izanen diren ordezkari haiek multzo mugatu batek aukeratuak izango dira. Beraz, benetan gizartearen ordezko ez direnak izango ditugu titularretan letra larriz idatziak. Merezi duguna daukagula diot, bozkatzeaz paso egiten badugu, haien zirkoa zintzo eserita ikusteko aukera bakarrik geratzen zaigulako.

Bestetik, igande hori iristen denean benetan ongi senti naiteke neure buruarekin. Azkenean bukatu da kanpaina, bonbardaketa, hitz gero eta politagoen erakustaldia. Azkenean eman dut neure bozka eta bai, lau urte luze eta eder ditut oraindik hurrengo hauteskundeak iritsi arte.

Zenbat kontu egunero gure ahotan, titularretan, albistegietan. Zenbat eta zenbat denbora ematen ote dute gure ordezkari gorenek haiek eztabaidatzen? Eta nik diot, beti ere ene idealetatik abiatuta, noski, zer kostatzen ote den behar denari galdetzea. Nori eragiten dio ba boterean dagoen alderdi batek har ditzakeen edozein erabakiek? Nori, ez bada herriari? Plantea iezadazu zein den arazoa eta zein diren aukerak. Utz iezadazu tarte bat, pentsa dezadan. Erabaki dezagun. Galde iezaguzu zein den gure azken hitza. Azkena, eta batez ere, gurea. Honek bere denbora darama, ados, eta noski ezin izango da beti denen gustukoa izango den errezeta magikorik aurkitu. Gutxienez, ordea, iritzia emateko aukera izan duzu.

Joan den asteburuan hauteskundeak izan ditugu gurean eta bai, benetan harro nago. Galdetu egin zaigulako eta nahi izan duen orok iritzia emateko eskubideaz gozatu duelako. Bakoitzak bere aldetik jartzen badu, guztiona den zerbait eraikitzea posible egingo baitugu.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - **Maialen Unanue** - Joxe Piñas - Ugaitz Agirre - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. Ale bakoitzean ez dira bi Ika-mika baino gehiago argitaratuko. Ika-mika bat baino gehiago iristen bada, Noaua!k idatzi horietako bat hurrengo ale batean argitaratzeko eskubidea izango du. Noaua!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.
Hurrengo alea: martxoak 12. Idatzia ekartzeko azken eguna: martxoak 8.







# Hiri hondakinak kudeatzeko sozietatea sortzeko lehen urratsa eman dute Usurbil, Hernani eta Oiartzungo udalek

**Hiri hondakinen kudeaketak hiru udal batu ditu, Usurbil, Oiartzun eta Hernanikoak hain zuzen, hiruren artean merkataritza sozietate berri bat sortzeko. Bilgune berria, hiri hondakinen bilketa edota tratamendu lanez arduratuko litzateke, emaitzak hobetu edota hondakinen legedia betetzeko. Otsailaren 23an burutu zen osoko ohiko bilkuran, egitasmoa hasieraz onartu zen.**

Hiri hondakinak kudeatzeko nortasun juridiko desberdindua izango duen entitate bat, erantzukizun mugatuko merkataritza sozietatea eratzeko asmoa du Usurbilgo Udalak, Oiartzun eta Hernaniko udalekin batera. Hondakinen bilketa eta tratamenduaz arduratuko litzateke, emaitzak hobetu eta legedia betetzea helburu izan nahi dituen sozietateak.

### Konpostatzea sustatu

Ez baita ahaztu behar, bost mila biztanletik gorako udalerriak birziklagarriak diren hondakin zatiak bereizita jasotzeko zerbitzua eskaini eta tratatzera derrigortuak daudela. Araudia betetzeko Udalak bere apustua zein den zehaztua du; bilketari dagokionez, duela ia urtebete martxan jarritako atez ateko sistema eta tratamendurako, konpostatzearen aldeko apustua berresten du. Eta orain, hori guztia kudeatzeko sozietate berria sortzea.

### Gaurkoz, hirukoa

Aipatu moduan, sozietatea oraingoz hiru udalek osatuko lukete; Usurbil, Oiartzun eta Hernanikoak hain zuzen. Bilgunearen kapital soziala, 500.000 eurokoa litzateke. Usurbilgo Udalak %18ko partaidetza izango luke, Oiartzungoak %33 eta Hernanikoak %49. Baina hiru udalok gauzatu asmo duten egitasmoarekin bat egin nahi duten beste toki administrazioei aholkularitza emateko aukera ez dute baztertzen.

### Hasieraz onartua

Egitasmoa aurrerabidean da jada. Otsailaren 23ko osoko ohiko bilkuran, ezker abertzaleak proposamena aurkeztu eta hasieraz onartu zen. Orain, alegazioen txanda dator, dokumentazioa 30 lanegunez jendaurrean ikusgai egongo da.

### Sozietatea eta galdeketa

Osoko bilkuran egitasmoa bozkatzerakoan Aralarreko zinegotziak abstenitu ziren, proposamenarekin bat egin arren, hobeto aztertzeko denbora gehiago hartu nahi dutelako. Gainerako udal ordezkariak aurka agertu ziren. Atez ateko bilketarekin eta Atez Ate S.A. sozietatearekin egin bezala, Usurbil, Hernani eta Oiartzungo udalak bateratuko lituzkeen bilgune berriaren aurka bozkatu zuen Alkarbide udal taldeak. Bozeramaile Luismari Ormaetxeak gaineratu zuenez, halako proposamen bat herri galdeketaren bezperatan planteatzea, “erreferendumari barre egitea da”. Bide beretik, gaia mahai gainean uztea eskatu zuten Iñaki Illarramendik (EAJ-PNV) eta Amaia Goyaranek (PSE-EE). Udal ordezkari sozialistak adierazi zuenez, asteburuko galdeketari begira, “herritarrenganako errespetua izateagatik”.

Adierazpenoi erantzunez, alkate Xabier Mikel Errekondok asteburuan burutzekoa zen herri galdeketatik erabat deslotu zuen bozkatzera zihoazen proposamena. Bere esanetan, “tramitazio huts bat da, hasierako onarpena baino ez da”. Eta galdeketaren ikuspuntutik at dagoela, ez duela ezer baldintzatzen gaineratu zuen. Kontuan hartu behar baita, hasierako onarpena baino ez dela.

Azkenean, bi bozketa burutu ziren. Lehenengoa, gaia mahai gainean uzteko. Aurka agertu ziren ezker abertzalea eta Aralarreko zinegotziak eta alde gainerakoak. Gai zerrendako hirugarren puntua zena beraz, ez zen beste bilkura batean eztabaidatzeko utzi.



SOZIETATE BERRIA HASIERAZ ONARTU ZUEN UDALBATZA PLENOAK.

Egitasmoa hasieraz onartzeko burutu zen bigarren bozketan, ezker abertzalea alde agertu zen. Aralar abstenitu eta gainerako udal ordezkariak aurka agertu ziren.

### Usurbil Atez Ate S.A., bertan behera

Hernani eta Oiartzungo udalekin batera Usurbilgo Udalak sortu nahi duen sozietate berriak, iragan urtean antzeko bidetik ematen hasitako pausoak ezerezean uztea eragin zuen. Duela urtebete, 2009ko otsailaren 13an “Usurbil Atez Ate, S.A.” merkataritzako sozietatea sortzeko hartutako erabaki guztiak bertan behera uztea erabaki zuen udalbatzak, otsailaren 23ko osoko ohiko bilkuran.

## Ugartondo eremuko kontzertaziozko hitzarmen urbanistikoa

Ugartondo eremuko kontzertaziozko hitzarmen urbanistikoa hasieraz eta gehiengo osoz onartu zuen udalbatzak. Alegazioak aurkezteko jendaurrean ikusgai egongo da testua, hogei lanegunez. Hirigintza alorreko beste erabaki bat ere gehiengoz onartu zuen udalbatzak. Elutxeko Zuloa izenez ezagutzen den eremuko ezaugarri fitxaren aldaketa puntuala hasieraz onartu zuten udal ordezkariek. Onartutako dokumentazioa hilabetez jendaurrean ikusgai egongo da orain.

KALEBERRI

BEGOÑA REKONDO

# Egun batzuk



San Jose loreak ageri dira edozein erreka bazterretan. Aurki mendi elurtuen argazkia, mendi eta zelai berde eta koloretsuen argazkian bihurtuko da.

Martxoan gaude eta negua pixkanaka atzean uzten ari gara.

Bitarte honetan egunak badoaz eta egun batzuk gertakari batengatik edo bestearengatik, gure oroimenean gelditzen dira. Esaterako, otsailean gertatutako kale erdiko taberna batean. Inauteri eguna zen, ez ziren goizeko laurak, goizeko hamarrak baizik, gosaltzeko ordua. Hiru gizonezkoen artean borrokaldia izan zen, labana eta guzti. Badirudi hirurek zaurituta bukatu zutela. Bistakoa da egoera hauetan tabernariak pairatzen duten egoera arriskutsua dela. Hau dena goizean gertatu bazen ere, egunak inauteri giroan jarraitu zuen gaua arte.

Beste egun bat gogoratuko duguna, pasa den igandekoa da. Azkenean jakin ditugu zaborra bilketaren inguruan egindako herri galdeketaren emaitzak. Parte hartze handia izan zen, %70ekoa, eta emaitza gutxi gorabehera 455 botoen aldea, atez atekoaren alde. Emaitzak azaldu ondoren




alkateak hitz batzuk esan zituen, denei eskerrak emanez, eta gainontzeko gipuzkoarrei bide berdina hartzeko animatuaz. Jarraian bertso batzuk bota zituzten lau bertsolariek eta txistu doinu batekin amaitu zen saioa.

Bukatzeko, igande honetan urtero bezala Donostian Lilatoia ospatuko da. Dagoeneko herriko emakume batzuk prestatzen ari dira lasterketarako.

SANTUENEA

IÑAKI LARRAÑAGA

# Frontoi berria



Badakizue behin baino gehiagotan idatzi dudala eskubaloiko zelaiari buruz eta zer suposatzen duen auzoarentzat estalki bat ez edukitzeak, ba dirudienez, egun horiek laster bukatuko zaizkigu. Hainbat bileraren ondoren zehaztuta gelditu da nola izango den, bai eskubaloi zelaia, frontoia, plaza berria... Noiztik zegoen frontoi horren proiektua udaletxean? Zergatik egon da geldirik orain arte? Erantzunak zein diren ez dakit, kontua da aurten bukatuko direla lan hauek, eta baita ere auzoaren zati bat berrurbanizatuko dute. Honek guztiak zer suposatuko duen ez dakit baina, auzoa berpizteko balioko duela esango nuke.

Kronika idazten ari naizela jakin dut atez atekoak jarraituko duela eta horrek poza ematen dit baina, gure auzoan gehiengoak ez du aukera hau hautatu, zer egingo dugu ba, birziklatzen jarraitu beharko dugu, ze sistema honekin, birziklatu behintzat egiten da, eta horri heldu behar zaio.

Iritziak iritzi, emaitzak hor daude, baina bada jendea emaitzak susmagarritzat jo dituenak. Betikoa, galtzen duenak errua norbaiti bota behar dio. Hau guztia kirola balitz, edo partida bat, galtzen ikasi behar dela esango genuke eta protestatzen duenari badakizue, txartel horia edo gorria.

ATXEGALDE

M^JESUS URBIETA

# Udaberriaren zain



Udaberrian jarria daukagu gogoa. Eguraldi nahasia izan dugunez aurtengo negua nahiko luzea iruditzen ari zaigu. Eta hau nahikoa ez eta azken aste bukaeran kezkatuta eta ikaratuta ere esango nuke ibili gara. Adituek denborale txarra zetorrela eta haize bortitzak izango genituela eta etxetik ez ateratzeko esan eta esan ibili ditugu. Jendea urduri ibili da.

Dena dela, esan beharra dago Usurbilen eta gure auzoan ere ez duela halako eraginik izan. Beste herri batzuetan zorte txarragoa izan dute eta arazoak larriagoak izan ziren.

Igandean eguzkia izan genuen nagusi eta ibilalditxo bat egiteko aukera ere izan genuen. Mimosa zuhaitz dotoreak ikusteko parada izan nuen eta San Jose Loreak ere dotore daude zelaietan.

Garai hauetan, naturak edozein tokitan erakusten digu mugimenduan dagoela eta bere edertasunak erakusten dizkigu.

*Aurrerantzean, Kalejiran ataleko 8 kronikak txandaka argitaratuko ditugu. Txokoalde eta Urdaiagako kronikak hurrengo batean bilduko ditugu.*

KALEZAR

MAIDER MAKAZAGA

# Konpromezua garaile



Herri kontsultaren emaitza jakin ondoren, ezin izan dut nire poza ezkutatu eta nahiz eta ale honetarako zegokidan idatzia jada bidalia nuen, honako hau idatzi eta bestearen ordez berau ateratzea eskatu nion Alaitzi.

Poza esan dut, eta handia gainera ere, konpromezua atera delako garaile. Konpromezua birziklatzeko, konpromezua erakustarazteko bilketa sistema hau egitea posible dela eta emaitzak ematen ari dela. Konpromezua gure ingurunea zaintzeko eta konpromezua ere gure osasunaz pentsatzeko.

Eta bai, badakit lehen ere, ohiko edukiontziak zeudenean alegia, konpromezua zuen jenderik bazegoela baina ez gaur egun adina. Inposaketagatik? Bai, ziurrenera, baina kasu asko eta askotan norbanakook ez dugu erreakzionatzen horrela ez bada eta helburua zein den ikusirik, ni inposaketa horren alde nago.

Duela urtebete kezka genuen ea nola moldatuko ote ginen sistema honetara, zer suposatuko ote zuen guretzat, egokia izango ote zen edo ez eta beste hainbat eta hainbat galdera baina urtea pasa da eta nire inguruan izan dut kasurik hasiera hartan aurkako iritzia izan eta atzo aldeko botoa ematera joan



denik. Zilegi da aldeko zein aurkako iritzia izatea, eta positiboa gainera, baina gizalegezkoa ere buelta ematen jakitea.

Halere, garaipen honekin ez dugu dena amaitu denik pentsatu behar, ez eta gutxiago ere. Nire uste apalean oraindik sistema hau gorpuzten ari da eta horretan ere konpromezua hartu behar dugu gure iradokizunak dagozkien lekura helaraziaz. Ez du ezertarako balio lagunartean marmarrean aritu eta bere horretan uzten badugu. Ziur nago denon artean lortuko dugula.

Gehiago luzatu gabe, zorionak nire partetik Usurbilgo herriari eta sistema jartzera doazen herriak animatu.

AGINAGA

M. ANGELES ARRUTI

# Olatz Iruin medikuari



Urte batzuk badira lehen aldiz Usurbilgo anbulatorioara etorri zinela ordezkotza bat betetzera eta geroztik denboraldi luzea egin duzu gure artean. Orduan ez genuen sinetsiko hainbesteko samin utziko zigunik zure agurrak. Jakin bai, bagenekien ez zenuela plaza finkoa eta joan beharra izango zenuela, baina ez horrela. Badakit ez dela zure errua izan, ostiralean hamaiketan mezua jaso zenuela astelehenean Lizartzara joateko. Ez zenuen inongo aukerarik izan gutaz agurtzeko eta horretarako ere ez dago eskubiderik. Zure kontsultara joatea lagun baten etxera joatea bezala zen. Mediku ona izateaz gain pertsona oso ona zarela ikusi dugu. Nik zurekin harreman handia izan dut eta esan beharrean nago, medikuaz gain, laguna, psikologoa, konfidentea... izan zarela.

Zure irrifarrak arintzen zuen gure tentsio eta arazoak. Hori ez da askotan baloratzen baina niretzat asko balio du. Olatz, Aginagako eta Usurbilgo zure "gaixoek" besarkada handi bat bidaltzen dizugu eta ziur nago orain Lizartzan ere, guk bezain beste maitatuko zaituztela. Segi aurrera alaitasun horrekin eta badakizu herri hau zain daukazula nahi duzunean bueltatzeko, ongi etorria izango zara. Agur Olatz!

ZUBIETA

GARAZI ITURRALDE

# Azkenean bai!



Otsailak 27 larunbata, bozkatzeko nire lehenengo aukera, eta hiru paper aukeran: atez ate, lau edukiontzi gehi edukiontzi marroia, Amaran bezala, edo lau edukiontzi soilik.

Nik argi nuen zer bozkatu, egia esan ez da horren zaila botoa ematea. Errauskailuaren aurka nago eta argi geratu da herriaren gehiengoak, bi herenak baino gehiagok, ere ez duela nahi errauskailua. Argi geratu da atez- atekoarekin jarraitu nahi dela eta jarraituko dugula, nahiz eta bozkatutakoen herenak bost edukiontzi nahi izan.



Beraz, botoen % 66,76 ak argi dauka zer nahi duen Zubietan eta zer nahi ez duen, eta hori hainbat urtetan zehar azaldu izan da. Eta honekin batera ikusi da herriak birziklapenaren sistema nahi duela, hau da atez-atekoaren birziklapen sistema, horrela errauskailua baztertuz.

# Itzalaldi analogikoa badator Usurbilera ere

**Herritar bat baino gehiagok telebistako pantailaren behealdean azken asteotan ikusi du emisioa etengo dela martxoaren 10ean. Badator hainbestetan iragarritako itzalaldi analogikoa Usurbilera ere, eta prestaketa lanak hasiak dira dagoeneko.**

Udalerriari zerbitzua ematen dion Talai igorgailuan kokatutako LTD ekipoak piztu dira, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Sailaren mendeko sozietate publiko Itelazpik jakinarazi duenez. Itelazpi EITB-ren telebista-seinaleak garraiatu eta hedatzearekin batera, Euskal Telebistaren LTD multiplex digitala zabaltzeko ardura du. Estatuko emisio analogikoak ere digitalizatzeko zeregina izango du. Izelazpitik jakinarazi dutenez, jabeen erkidegoak euren telekomunikazio instalatzaileekin harremanetan jar daitezke, antenetan egokitzapenak egiteko, LTD-aren seinaleak eskuragarri baitaude jada honako kanaletan:



Telebista aro berrira egokitzeko unea ailegatu da.

60 KANALA: ETB1, ETB 2, ETB 3, ETB-Sat.
63 KANALA: TVE1, TVE2, CLAN TV, CANAL. 24h.
66 KANALA: Teledeporte, VEO TV, Sony Entertainment, Disney Channel.
32 KANALA: CUATRO, CNN +, 40 Latino, La Sexta.
68 KANALA: TELECINCO, La Siete, FDF Telecinco, Intereconomia.
40 KANALA: ANTENA 3, Antena NEOX, Antena NOVA, GOL TV.




Ordaindu beharreko LTDa ikusi nahi baduzu, ziurtatu erosten duzun deskodegailuak aukera hori baduela.

## Maixu etxeko sei etxebizitzak

Gernika ibilbidean, Udarregi ikastola ondoan kokatzen diren Maixu etxeko udal jabetzako sei etxebizitza alokairuan esleitzeko bete beharreko Lege, Ekonomi eta Administrazio baldintzen orriak behin betirako onartu zituen udalbatzak aho batez, otsaileko azken astean burututako osoko ohiko bilkuran. Aurkeztutako alegazio bakarra partzialki aintzat hartu da. Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

## Mintzalagun ekimenaren aurkezpena

Euskararen ikasketa-prozesu osoa oraindik amaitu ez dutenei euskaraz egiteko eta, aldi berean, herriko beste euskaldunak ezagutzeko guneak eskaini behar zaizkie. Hori da Mintzalagun proiektuaren oinarria, Usurbilen martxan jarri berri dena. Martxoaren 11n Artzabalen egingo da aurkezpena, arratsaldeko 19:00etan.

## Eskolen ordezkari berria, Kirol Patronatuan

Kirol Patronatuko Zuzendaritza Batzorderako kide berri bat izendatu zuen aho batez udalbatzak; eskolen ordezkaria hain zuzen. Iban Maritxalar Elizondo izan zen aukeratua. Datozen bi urteetan Usurbilgo eskolen ordezkari lanetan jardungo du.






# Larunbat honetan, Gipuzkoako Haur Kantari Jaialdia

**Zumarte musika eskolak eta Udalak antolatutako Soinurbilen seigarren edizioa azken txanpara ailegatzen ari da. Baina proposamen desberdin bezain interesgarriak ez dira amaitu. Oraindik herritarrak abesten edota musika entzutera gonbidatu nahi dituzte antolatzaileek, igandera bitarte.**



EUSKAL, IRLANDAR ETA ARGENTINAR DOINUAK TARTEKATZEN DIRA HARIOTS TALDEAREN EMANALDIETAN. OSTIRAL HONETAN, SUTEGIN.

Haur kabaretarekin eta Zumarte musika eskolako ikasleek azkoitiarrekin egindako elkar trukaketa saioarekin hasi da Soinurbil Musika Astearen seigarren edizioa. Baina aipatu moduan, igandera bitarte izango da bai zer entzun eta ikusia. Ekitaldi gehienak Sutegiko auditorioan burutuko dira, baina kultur etxetik kanpora ere hedatuko da Soinurbil ekimenaren oihartzuna. Igandean, martxoak 7, Hondarribiko Banda bisitan dator Usurbila. Herriko kaleak girotuko ditu eguerdi partean frontoiraino. Segidan, Jose Antonio Irastorzak zuzendutako taldeak pilotalekuan emanaldia eskainiko du.

**HONDARRIBIKO BANDA**

> "Igandean, aldiz, Hondarribiko Banda ibiliko da eguerditik kalejiran"

Haurrak izango dira Musika Asteko beste protagonistak. Euskal Kantuzaleen Elkarteak urtean zehar hainbat Haur Kantari Jaialdi antolatzen ditu. Saioetako bat Usurbilen, eta Soinurbil Musika Astearen barruan programatu dute. Gaztetxoen artean kantu zaletasuna bultzatzea helburu duen jaialdian, 6-15 urte arteko abeslari gaztetxoak entzun ahal izango dira Sutegiko oholtza gainean.

## Pianoa, bertsotan...

Guztiak, Gipuzkoako ikastetxe edota musika eskoletako ikasleak dira. Hitzordua, larunbat arratsaldeko 18:00etan.

Abesten entzun bakarrik ez, ikusentzuleek kantatu eta gainera, norberak gustukoena duen euskal kantua proposatzeko aukera izango du, inprobisazioa ezaugarri nagusi izango duen martxoaren 4ko emanaldian. "Piano bat bertsotan. Euskal kanta zahar eta berriak herriaren ahotan" ikuskizunean publikoa emanaldiko gidari bihurtuko dute, Ainhoa Ansa (ahotsa eta gitarra) eta Jagoba Astiazaran (pianoa eta ahotsa) musikari bikoteak. Norberak entzun nahi duen euskal abestia paper zati batean idatzi eta proposamen guztien artean, zozketa bidez eskatutakoa joko dute musikariek. Emanaldiko sarrera, doakoa izango da.

## "Hariots" eta Elizako organoa

Txoko desberdinetako folk musika emanaldi bakar batean biltzea lortu du Musika Astearen eskutik gonbidatuta datorren "Hariots" taldeak. Maite Elizondok (pianoa eta arpa zelta), Iñigo Salaberriak (biolina eta perkusioa), Miguel Angel Garciak (baxua) eta Julio Bravok (biolina eta mandolina) osatutako taldearen emanaldian, euskal, irlandar edota argentinar doinuak tartekatuko dira. Ostiraleko ekitaldirako sarrerak salgai daude Kiroldegian.

## Soinurbil 2010

**MARTXOAK 4, OSTEGUNA**
**19:00 "Piano bat bertsotan"** emanaldia Sutegin.
Sarrera: doan.

**MARTXOAK 5, OSTIRALA**
**19:00 "Hariots" emanaldia Sutegin.**
Sarrera: aldez aurretik 2 eurotan. Egunean bertan, 4 eurotan.

**MARTXOAK 6, LARUNBATA**
**18:00 Gipuzkoako Haur Kantari Jaialdia Sutegin.**
Sarrera: gaztetxo eta bazkideek 3 euro. Helduek 5 euro.

**MARTXOAK 7, IGANDEA**
**11:30 Hondarribiko Banda**rekin kalejira.
12:30 Bandaren emanaldia frontoian.

**MARTXOAK 24, ASTEAZKENA**
**18:00 Organo erakustaldi** pedagogikoa Salbatore Elizan.

Antolatzaileak: Zumarte musika eskola eta Udala.



## Hiri hondakinen inguruko herri galdeketa

# "Zorionak usurbildarroi"

**Emaitzak eskutan, hiri hondakinen kudeaketari lotutako herri galdeketa igande gauean amaitu eta hurrengo goizean prentsaurrekoan agertu zen Xabier Mikel Errekondo alkatea, Imanol Azpirotz eta Ainara Uribe zinegotziekin batera. Agerraldian herritarrak zoriontzeko tartea hartu zuen lehenbizi. "Zorionak irabazleei, zorionak usurbildarrei", adierazi zuen.**

Atez ateko bilketa defendatu zuen Xabier Mikel Errekondok, herri galdeketan erantzun bozkatuena izan eta ordu gutxira. "Bosgarren edukiontziaren sistema erdipurdiko irtenbidea da. Atez ateren bidez, ondo egiten ditugu gauzak eta gipuzkoarrok gauzak ondo egin nahi ditugu", adierazi zuen Errekondok.

**BETEBEHARREKOA**

"Informazioa, eztabaida eta erabaki ahalmena izanez gero, erantzuten du gipuzkoarrak"

Atez atetik itxaropena datorrela baieztatu zuen Errekondok eta atez atekoa itxaropena dela, zabortegia gainditu edota erraustegi egitasmoaren sei urteko moratoria eskatzeko eta "gauzak ondo egitea nahi dugun gipuzkoarrok aukera bat ere merezi dugulako".

### Errraustegiaz galdetzeko eskaera

Eskuzabaltasuna eta gauzak ondo egiteko kemena, horiek dira bere aburuz atez ateko bilketa sistemaren ezaugarri nagusiak, eta aldi berean, baita "gipuzkoarron ezaugarriak".

Herritarrek parte hartzeko bideak jartzearen aldeko apustua berretsi zuen Errekondok, bere iritziz, herritarrek parte hartzeko borondatea baitute. Bere esanetan, "informazioa, eztabaida eta erabaki ahalmena izanez gero, erantzuten du gipuzkoarrak". Asteburuko herri galdeketa horren lekuko; bozkatzera deituak zeuden herritarren %70,23ak botoa eman du asteburuan.

### "Usurbilgo Ituna"

Alkatearen esanetan, parte hartzeko borondate bera izango lukete herritarrek, beste erabaki batzuk kontsultatuko balira. "Ariketa berbera egin nahi du gipuzkoarrak erraustegiarekin", adierazi zuen Errekondok. Udalak asteburuan egin bezala, gobernuek bere erabakiak iritzi publikoaren ispiluaren aurrean jarri behar dituztela gaineratu zuen.



ASTELEHENEAN IRAGARRI ZUTEN USURBILGO ITUNA MARTXAN JARTZEKO PROPOSAMENA.

Martxoko lehen egunean Udalak eskaini zuen lehen agerraldia, ez da aste honetako azkena izango. Egunotan, besteak beste, erraustegi egitasmoaren sei urteko moratoria eskaera jasoko duen Usurbilgo Ituna delakoa aurkeztuko dute, asteleheneko prentsaurrekoan alkateak iragarri zuenez.

Hiri hondakinen kudeaketari herrialde mailan konponbide integral bat emateko beharra ere azpimarratu zuen.

## Herri galdeketako emaitzen taula

| HAUTES. | ERROLDA | PARTEHARTZ. | % | ATEZ ATE | 4 EDUKION. | 5 EDUKION. | ZURI | BALIOGABE |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| SUTEGI | 1.263 | 904 | 71,6 | 540 | 8 | 350 | 0 | 6 |
| SUTEGI | 1.275 | 936 | 73,4 | 490 | 7 | 437 | 0 | 2 |
| Santuenea | 580 | 378 | 65,2 | 184 | 3 | 188 | 0 | 3 |
| Aginaga | 393 | 249 | 63,3 | 140 | 5 | 98 | 1 | 5 |
| Kalezar | 1.049 | 751 | 71, 6 | 439 | 2 | 304 | 1 | 5 |
| Zubieta | 355 | 234 | 65, 9 | 134 | 1 | 95 | 0 | 4 |
| GUZTIRA | 4.915 | 3.452 | 70,23 | 1.927 | 26 | 1472 | 2 | 25 |
| BOTOEN % | | 70,23% | | 56,23% | 0,76% | 42,95% | 0,06% | |

## Hiri hondakinen inguruko herri galdeketa



# Emaitzen inguruko balorazioak

### Ezker Abertzalea: "Izugarrizko ariketa demokratikoa izan da"

Agurtzane Solaberrietak bozka kopuru altuan erreparatu zuen lehen lehenik: "azpimarratzekoa da parte hartzea, izugarrizko ariketa demokratikoa izan da; beste erakundeek ere aintzat hartu beharko lukete. Parte hartzeak erakutsi du jendeak badakiela arazo handia dela hondakinena, eta arazoa den neurrian guztiok dugula zeresana horretan". Emaitzari dagokionez, "pozik atez atekoak irabazi egin duelako. Sistema berria da, berritzailea. Urtebete egin dugu atez atekoarekin eta herritarrek erakutsi dute ze sistema babesten duten".

### Hamaikabat Usurbil: “Atez atekoaren frakasoa irudikatu du”

Igande gauez hainbatetan saiatu ginen telefonoz Luismari Ormaetxearekin harremanetan jartzen baina ez zituen NOAUA!tik egindako telefono deiak erantzun. Astelehenean, euren webgunean emaitzen gaineko balorazio bat ipini zuten: herritarrak zoriondu eta arrakastatsutzat jotzen dute galdeketan izandako partehartze altua, honek “adierazten du kontsulta beharrezkoa zela. Azken asteotan, badirudi alkateari eta bera babesten duten alderdiei esker egin dela herri galdeketa”, baina alderantziz izan dela diote. “Traba, manipulazio eta atzerapenak izan badira ere, Hamaikabat eta Herri Plataformaren konstantziari esker egin da herri kontsulta”.

Benetako informazioa ukatu dela salatu dute, hedabideen artean alderatze ezberdina 5 edukiontziak eta atez atekoa defenditzen zutenen artean, Hamaikabat izan ezik gainontzeko alderdi guztiek bat egin dutela atez atekoaren alde… Hori guztia kontuan harturik, 5 edukiontzien aldeko botoak duinak izateaz aparte, “oso onak dira”.

Usurbilgo alkateari Usurbilek dituen arazoetan erreparatzeko eskatzen diote eta galdeketaren emaitza ikusita, 5 edukiontzien aldeko apostua defendatzen jarraituko dutela dio Hamaikabatek bere web gunean egin duen balorazioan (orrialde hau osatzerakoan, soilik erdarazko balorazioa zegoen jarria).

### Aralar: "Atez atekoaren alde egin duten guztiei zorionak"

Lontxo Zubiria Aralarreko zinegotziak, lehenik eta behin, parte hartze altua nabarmendu nahi izan zuen: "%70ekoa izan da, beraz, hasteko usurbildarrei eskerrak eman parte hartze zabala izan delako”.

Atez atekoaren aldeko apustua egin duten guztiei “zorionak eman nahi dizkiet. Gehiago etorriko dira eta hemendik animatu nahi ditut Oiartzun eta Hernaniko herriak, bidea elkarrekin egin dezagun. Atez atekoa delako bidea".

### EAJ-PNV: "Emaitza garbia izan da"

Lourdes Jauregiberri Eusko Alderdi Jeltzaleko kideak, "hasteko, herritarrak zoriondu nahi ditugu, partehartzea ikaragarria izan delako. Jendea oso sentsibilizatuta dago gai honekin. Hedabideek asko lagundu dute eta inork ez du bozkatzeko zita ahaztu”. Hala nola, “emaitza garbia izan da. Ez dut uste inork zalantzan jarriko duenik. Atez atekoa nagusitu da. Eta aurretik esan genuen bezala, emaitza errespetatu egingo dugu”.

Bestetik, 5 edukiontzien alde 1.400 boto izan dira eta horrek hausnarketa bat eskatzen duela uste du Eusko Alderdi Jeltzaleko kideak. Zentzu horretan, zerbitzua hobetze aldera, EAJ-PNVk hilabeteotan hainbat egokitzapen proposatu ditu.

### PSE-EE: "Hausnartzeko garaia da"

Amaya Goyaran alderdi sozialistako zinegotziak herritar denak zoriondu nahi izan zituen. “Normaltasun osoz igaro dira herri kontsultako bi egunak. Aparteko gorabeherarik gabe. Emaitzei erreparatuz, argi dago zerbait ez dela ondo egin. Bozka eman dutenen %43ak ez du atez atekoan sinesten. Zerbaitek ez du funtzionatzen”.

Atez atekoa diferentzia txiki batekin gailendu zela uste du eta horregatik “hausnartzeko garaia da. Mahai baten inguruan eseri eta aztertu beharko da zergatik eman diren emaitza hauek”.

### Atez Ate Dudipe Bilgunea: "Jendeak sinistu egin du atez ateko sisteman"

Joxe Mari Irazusta Atez Ate Dudipe Bilguneko kidearen esanetan, herri mailako erreferenduma izateko, “sekulako emaitza izan da parte hartzearena. Sekulako garaipena, usurbildar guztiok harro egoteko modukoa. Emaitzari dagokionez, jendeak heldu dio arazo honi, ikasi du atez ateko sistema erabiltzen eta horretan jarraitu nahi du. Erronka berriei ekiteko ilusioa ematen digu”. Hitz gutxitan, “partehartze handia eta jendeak sinistu duela atez atekoan”.

### Herri Plataforma: “Askok errauste plantaren aurkako botoa eman dute”

Emaitzak ezagutu zirenetik, 5 edukiontzien aldeko Herri Plataformako bozeramaleak ez ditu NOAUA!tik egindako telefono deiak erantzun. Asteartean baina, Berriari egindako adierazpen hauek irakur zitezkeen: “Askok errauste plantaren aurkako botoa eman dute, ez atez atekoaren aldekoa”. Balorazioa ona da, hala ere, usurbildarren %99,24 gaikako bilketaren alde agertu direlako, “baita organikoa jasotzearen alde ere”. Galdeketak utzi du alde iluna ere, Pedro Ibarraren hitzetan: “%43k baztertu egin dute atez atekoa. Zatiketa dago usurbildarren artean, eta Udalak hausnartu egin beharko luke horri buruz”.

Proposamen zehatzik ez du egin Ibarrak, baina auzo guztietan atez atekoa egin beharrean, leku batzuetan “bilketa mistoa” egin litekeela iruditzen zaio. Galdeketari helegitea aurkeztua dio, bestalde, Ibarrak. Irregulartasunak izan zirela dio, eta helegiteen bidetik etorkizunean galdeketaren emaitzak baliogabetzeko aukera ez du baztertu.

## Xabier Carbayeda, Euskaltel Euskadiko masajista

# Hiru hamarkada txirrindularitzaren munduan

**Bizikleta gainean lehenbizi, prestatzaile lanetan gero, gaur egun masajista moduan dihardu Xabier Carbayeda herritarrak Euskaltel-Euskadi taldean. Buruntzazpi txirrindulari eskolako sortzaileetakoa ere bada. Martxoaren 13an proba antolatu dute Zumartegi industrialdean. Txirrindularitza denboraldi berria hasi da.**



TXIRRINDULARI IZANDAKOA, GAUR EGUN EUSKALTEL EUSKADIKO MASAJISTA DA ETA, HORRETAZ APARTE, BURUNTZAZPI ESKOLAKO KIDE DA.

**NOAUA. Elkarrizketatzerakoan, Almeriarako bidean harrapatu zaitugu?**

**Xabier Carbayeda.** Igandean Almeriako Klasika izango da, 200 bat kilometrokoa. Denboraldia Australian hasi genuen eta lehengo astean Algarven (Portugal) ibili gara. Eta orain Almeria. Gure taldeko helburuak, Euskal Herriko itzulia, bertako lasterketak eta gehienbat Frantziako Tourra dira. Hasieran ez gara oso indartsuegi hasten, apirilean Euskal Herriko itzulian gure helburu garrantzitsuetako bat baita, eta gero Tourra. Frantziako itzulian ondo ibili eta etaparen bat irabaztea, hura gure helburu nagusia.

**N. Nola ikusten duzue Euskaltel Euskadi taldea aurtengo denboraldiari begira?**

**X. C.** Taldearen filosofia ikusita, emaitzak garrantzitsuak dira. Baina kontuan hartu behar da, euskaldunekin bakarrik hornitzen garela eta orduan, ez dugu beste talde baten emaitzarik lortzerik.

Hamasei urte daramatzat taldean eta neure helburua, etxean lana ondo egin, ahal den neurrian lasterketak ondo prestatu eta emaitzak lortzea da. Miraririk ez dago egiterik. Lana txukun egin eta

→

## Lau urtez aritu zen txirrindulari profesionalen artean

**NOAUA! Pedalei noiz hasi zinen eragiten?**

**Xabier Carbayeda.** Usurbilen hasi nintzen 14 urterekin, lehengusu batek eta Unanue anaiek lagunduta. Lasterketetara beraiekin joaten nintzen. Lehen urtean independente ibili eta gero, Tolosan fitxatu zidaten. Han ibili nintzen jubenil mailara arte. Gero zaletu mailara Orbearekin pasa nintzen. Lau urte egin nituen bertan, eta orduan Seulgo olinpiar jokoetan parte hartu nuen. Eta hor jada profesionaletara pasa nintzen Caja Ruralekin. Ez ziren oso urte onak izan, hasi bukatu gabe utzi, dirurik gabe geratu zen taldea... Bigarren urtean Artiachekin ibili ginen, hirugarren urtean Paterninarekin egin nuen eta laugarrena, beste talde batekin. Orduan erabaki nuen uztea. Nik utzi bezala, Ramonek ere utzi zuen.

**N. Txirrindularitza bizirik zegoen garai hartan Usurbilen?**

**X.C.** Hasi nintzenean ez zegoen ezer. Gu hasi eta gero pixkanaka Usurbilgo eta Lasarteko jendea biltzen joan eta Usurbilgo txirrindulari eskola martxan jarri zen. Berrogei bat lagun izatera ailegatu ginen.

Ramon Unanuek eskola utzi zuenean, lan horietan hasi nintzen. Urte batzuetan hor ibili ginen, Dana Ona taldearekin.




TALDE EZBERDINETAN ARITU ZEN PROFESIONAL MAILAN.

# “Oso exijentea da txirrindularitza”

tarteka Tourrean etaparen bat irabazita, gustura.

**N. Masajista lanetan zabiltza. Txirrindulariak behar bezala zaintzen al dira?**

X. C. Denetarik dago. Zaletasun handia izan eta asko zaintzen direnak daude, beste batzuk zaletasun gutxiago eta nahiz eta kalitate gehiago izan, gutxiago zaintzen direnak. Baina egia da txirrindularitzan aritzen denak asko zaindu behar duela. Kirol jarduera oso exijentea da. Atsedenaldi, elikadura eta parrandak asko neurtu beharra daude, emaitza onak lortu nahi badira.

**BETI KIROLAREN INGURUAN**

“Bizikleta utzi, masajea ikasten hasi eta bere ofizioak kirolari lotuta jarraitzen du”

**N. Usurbildarra izanik, ezin ahaztu Haimar Zubeldiaz. Zer nolako kirol urtea iragartzen diozu?**

X. C. Taldean oso gustura eta lasai ikusten dut. Euskaltel-Euskadin beste erronka batzuk zituen, lider papera zuen. Orain, bere egitekoa Armstrong-i eta beste batzuei laguntzea izango da. Konfiantza duela uste dut eta seguru paper ona egingo duela.

**N. Txirrindularitza barruan zereginez aldatu duzun neurrian, aldatuko zen kirol jarduerari duzun ikuspegia ere?**

X. C. Material eta arropa aldetik dezente aldatu da. Aldatu dena jendearen pentsaera da. Jendeari gehiago kostatzen zaio, saiatzea, sufritzea. Denok nahi dugu erosotasuna arlo guztietan. Argi dagoena da, kirola erosotasunarekin ez dagoela lotuta. Alde horretatik geroz eta urrutiago dago gaurko bizimodua kirolarekin. Gu baino maila baxuagoa dutenek sufritzeko gogo gehiagorekin etortzen dira, alde horretatik lehiakortasun handiagoa dago. Baten batek zerbait nahi badu, askoz gehiago saiatu behar du.

Eta gero txirrindularitzari ere globalizazioak harrapatu dio. Lehen hemen ingurukoak bakarrik ibiltzen ginen, orain berriz, edozein lekutan dugu australiar edo amerikar bat, edo errusiar bat. Denak etxean ditugu.



1982AN IRABAZI ZUEN LEHEN LASTERKETA IRUN ALDEAN. AMARI ESKAINI ZION LORE SORTA.

**N. Urteotan txirrindularitza mundua hain gertutik bizi izanda, bizikleta gainera itzultzeko tentaziorik ez al duzu izan?**

X. C. Ez. Profesionaletan lau urte egin nituen, utzi behar izan nuen, baina une onenak ez ziren. Eta nire helburua, pentsatu nuen irtenbide zaila zegoela. Nire bizitzak aurrera jarraitzen du, ezkondu eta beste martxa bat hartzen du. Bizikleta utzi eta erabaki nuen, kirol arlotik jarraitzea. Masajea ikasten hasi eta hortik jarraitu dut. 14 urterekin hasi nintzen, 44 urte betetzera noa. 30 urte daramatzat kirol alorrari lotuta.

## Buruntzazpi txirrindulari eskolako sortzaile

**Xabier Carbayedak eta Alex Urkiolak Buruntzazpi txirrindulari eskola jarri dute martxan. Datorren astean, martxoaren 13an, lasterketa antolatu dute Zumartegi industrialdean, infantil eta alebin mailako txirrindularientzat.**

Xabier Carbayedak azaldu digunez, taldea hazten ari da. “Orain, hamar urte arteko haurrekin ari gara, lehiakortasunik gabeko maila da. Larunbatetan ibiltzen gara bai Lasarten eta Usurbilen, eta jolastu egiten dute”.

10-18 urte artekoen artean aldiz, lehiakortasun maila dago, eta nahi duenak lasterketetan parte hartzen hasteko aukera du.

**N. Astebete barru, txirrindularitza proba antolatu duzue, Usurbilen.**

X. C. Txikientzako Zumartegi industrialdean urtean pare bat lasterketa antolatzen ditugu. Iaz Gipuzkoako txapelketa burutu zen taldeka. Zirkuituko lasterketa txiki hau mantendu nahi dugu. Hitzordua, martxoaren 13an, 16:30etan Zumartegi industrialdean. Gazteek parte hartuko dute; alebin eta infantil mailakoen lasterketa bana izango da.

## San Estebango igoera...

**N. Gaztetako oroitzapen edo bitxikeriarik gogoan izango duzu.**

X. C. 1984an izango zen. Jubenil mailakoentzat prestatu zen Usurbilen lasterketa bat. Igoeratan nahiko ondo moldatzen nintzen. Helmuga San Estebango plaza aurrean jarri zen. Lau txirrindulari ailegatu ginen bertara. Bigarren ailegatu nintzen, ez nuen lortu irabaztea. Irungo batek irabazi zidan. Oroitzapen polita izan zen. Herrikoentzat lasterketa prestatzen aritu arren, argi dago, ez da beti lortzen nahi dena. Irabaztea zaila izaten da, nahiz norberak prestatu ibilbidea. Urte politak izan ziren.

# Ziortzako kanpaldirako izen ematea martxoak 31 arte

**Ziortza Gazte Elkarteak uztailerako kanpaldia antolatu du eta jada izen emateko epea zabalik dago, martxoaren 31 arte. Bi txanda prestatu dituzte. DBHko ikasleek uztailaren 5etik 18ra luzatuko den lehen txandarako izena eman dezakete. LH 5 eta 6 mailatako ikasleek uztailaren 18tik 24ra arteko bigarren txandan. Izen emateko datuak posta elektronikora bidali ziortzage@gmail.com edo Ziortzako kideekin harremanetan jarri.**




Bi txanda antolatu dira. Lehena uztailaren 5ean hasiko da; bigarrena, uztailaren 18an.

LEHEN TXANDA
DBH 1, 2, 3, 4
Egunak: uztailak 5-uztailak 18

BIGARREN TXANDA
LH 5, 6
Egunak: uztailak 18-uztailak 24

IZENA EMATEKO
Emailez: ziortzage@gmail.com
Edota Ziortzako Gazte Elkarteak bere egoitzan duen postontzian.

**Laguntzaileak:** Usurbilgo Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia.

## Atez ate Dudipe Bilguneko zozketen zenbaki sarituak

Atez Ate Dudipe Bilguneak hainbat zozketa egin ditu egun hauetan. Hemen dira egin diren zozketen zenbaki sarituak:

1100-Marisko lotea
1350-Artzabal jatetxean afaria
1602-Patri jatetxean afaria
1604-Errasti sagardotegian afaria
2022-Txitxardin beltxan afaria
2049-Txiriboga tabernan afaria

### Martxoaren 5ean, Batzarra Artzabalen

Atez Ate Dudipe Bilguneak bilera egingo du martxoaren 5ean ostirala arratsaldeko 19:30ean Artzabalen. Bertan kanpainaren emaitzen balantzea egingo da. Bilera irekia izango da.

# Judoko juniorrak ondo aritu ziren Tuteran jokatutako norgehiagokan

**Otsailaren 21ean, Espainiako Txapelketarako kanporaketa jokatu zen Tuteran. Sailkatutakoak, larunbat honetan Arganda del Reyn lehiatuko dira.**

**Eneritz Agoüesek** lan ona egin zuen, lehia denak irabaziz. **Maialen Zubeldia** eta **Jessica Romero** ere, txapeldun izan ziren. Hirurak Espainiako Txapelketan lehiatuko dira asteburu honetan Argandan. **Myriam Gonzalez, Andrea Arruabarrena** eta **Ane Cazorlak** lan ona egin zuten baina ez ziren Argandako txapelketarako sailkatu.

Iaz domina eskuratu zuten **Aiora Arrillagak** eta **Andoni Cazorlak** eta hauek ere Argandarako txartela dute.

Bestetik, duela bi aste, **Oiana Blancok** azpimarratzeko moduko 5. postua lortu zuen Alemaniako Düsseldorfeko txapelketan.



Ane Cazorla eta Beñat Aburuza Fuenlabradako txapelketan izan dira.
Argazkia, arajudo.com2010

BORDATXO
edaritegia
PINTXO BEREZIAK
Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42









# Eskubaloiko jubenil mutilak, Federazio Trofeoa lortzeko borroka betean

**Euskal Ligako fasea jokatzeko txartela eskuratzear izan ostean, Federazio Trofeoa eskubaloiko jubenil mutilen taldearen erronka nagusian bilakatu da. Orain arteko ibilbidearen inguruan balorazio baikorra egiten dute, jokalari kopuru justuarekin moldatu behar izan duten arren. Datorren denboraldirako Enrike Uli entrenatzailearen kezka iturri nagusia da talde osaketa.**

**NOAUA! Denboraldi honetan, orain arte egindakoa zer modutan balora dezakezue?**

**Enrike Uli.** Gipuzkoa mailan jolasten dugu. Lehen bi neurketak Euskal Ligara igotzeko fasea jokatzeko giltzarriak ziren eta galdu genituen. Hirugarren geratu ginen Euskal Ligako fasea jokatzeko. Ez zait oso ondo iruditzen nola antolatzen duten txapelketa hau. Txapelketak ez du aukera ematen akatsen bat izateko, bost partidetan dena egin behar duzu. Bigarren fasean partida dezente irabazi genituen eta oso ondo aritu ginen. Bosgarren postuan amaitu genuen. Orain, Trofeo Federazioko txapelketa jokatzen ari gara. Hamalau partida jokatu ditugu, hamar irabazi, hiru galdu eta bat berdindu dugu. Euskal Ligara igotzeko helburua lortu ez arren, balantzea oso positiboa da.

**N. Neurketei aurre egiteko zuen baliabideak zeintzuk dira?**

**E.U.** Jokalariek lagun taldea osatzen dute, elkarren artean oso ondo moldatzen dira. Ikastolan eta kalean denak elkarrekin ibiltzen dira, eta hori nabari da. Lesioak egokitu izan zaizkigu, baina hor mantendu gara, zazpi edo bederatzi jokalarirekin, hamar jokalarirekin oso partida gutxi jokatu ditugu.

**N. Denboraldi bukaera nola ikusten duzue?**

**E.U.** Federazio Trofeoari lotutako txapelketa apirila amaierara arte luzatuko da. Irabazten saiatuko gara. Partida bat galdu dugu. Maila oso ona hartu dugu eta aukera badugu. Irabazi edo behintzat, lehen hiru postuetan sailkatzeko asmoa dugu. Ia hala den, Euskal Ligarako aukera galdu ostean, jokalariek motibazio gehiago izan dezaten.


DATORREN DENBORALDIRAKO JUBENIL MAILAKO KIROLARIEI, ESKUBALOIAN IZENA EMATERA ANIMATU NAHI DITUZTE.

> **ENRIKE ULI**
> "Jokalariek partidetan dena ematen dute; neurketetan oso ondo erantzuten dute"

**N. Jubenil mailako talde berria da zuena?**

**E. U.** Zazpi jokalari bigarren urtekoak dira, eta hiru lehen urtekoak.

**N. Atzetik jende gehiago badator?**

**E. U.** Hurrengo denboraldian oso larri ibiliko gara. Bigarren urteko kadeteen mailan, beste hiru edo lau jokalari daude, jubenil mailara igoko zirenak. Orain daudenak jubeniletako lehen urtekoekin batuta, zazpi jokalari soilik izango ditugu. Ia jendea animatzen den, baina taldea osatzeko larri samar ibiliko gara.

**N. Deialdia egin nahiko duzue datorren denboraldirako?**

**E.U.** Hurrengo urterako ia jendea animatzen den. Lehen jokatutako jendea badago, batzuk futbolera joan direnak, besteak ikasketak direla eta utzi dutenak… Adin tarte honetan, entrenamendu saio askotara huts egiten dute, nahiz argi dugunez, lehentasuna ikasketek duten.

Deialdia egin nahi nuke, ia hurrengo urterako norbait animatzen den. Aurten, jendearekin nahiko eskas gabiltza. Hamar jokalariko taldea osatu dugu, gutxienez 12-15 jokalari egon izan ohi direnean. Gainera beti izaten dira lesioak. Jokatu izan ditugu hiruzpalau partida zazpi jokalarirekin, aldaketarik egin gabe.

**N. Jokalariak bestela gogotsu aritzen dira?**

**E.U.** Erosotasunera moldatzen dira. Entrenamendu saio gogorragoak planteatu arren, jokalariek bere muga, topea jartzen dute. Gehiago eman dezakete baina, hortxe izaten ditugu gure ikamikak. Halere, partidetan dena ematen dute, neurketetan oso ondo erantzuten dute.

## Agenda !

**Martxoak 3 asteazkena**
- **Azkoitiko Musika Eskolaren trukaketa, 18:30ean Sutegin.** Soinurbil Musika Astea.

**Martxoak 4 osteguna**
- **Piano bat bertsotan.** Euskal kanta zaharrak eta berriak. 19:00etan Sutegin. Soinurbil Musika Astea.

**Martxoak 5 ostirala**
- Atez Ate Dudipe Bilgunearen bilera irekia Artzabalen. 19:30ean.

**Martxoak 8 astelehena**
- Osama pelikula Artzabalen, 19:30etik aurrera.

### Goardiako farmaziak

**Martxoak 4, osteguna**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Martxoak 5, ostirala**
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Martxoak 6, larunbata**
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Martxoak 7, igandea**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Martxoak 8, astelehena**
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Martxoak 9, astearte**
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Martxoak 10, asteazkena**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Martxoak 11, osteguna**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Martxoak 12, ostirala**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Martxoak 13, larunbata**
Oa, Kontseju Zarra 11 Usurbil
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Martxoak 14, igandea**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

*GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ*
*Chucla farmazia (22:00-09:00),*
*Kardaberaz, 48, Hernani (943 551 793)*
**Usurbilen, soilik eguerdira arte*

# Martxoaren 8an, zine-foruma Artzabalen

**Hamabi urteko neska batek eta bere amak lan eskubidea galduko dute, baita bakarrik kalera ateratzekoa ere. Orduan, neska mutikoz jantzita aterako da kalera, baina mozorroa deskubritu egingo dute. Osama filmaren sinopsia da hauxe. Martxoaren 8an Artzabalen emango da film hau, 19:30etik aurrera, udaletxeko Gizarte Zerbitzuek antolatuta.**

Sari ugari irabazi ditu Osamak. 2003koa da Siddiq Barmaken zuzendutako pelikula. Lan honen inguruan, zine-foruma antolatu da martxoaren 8rako.

Osama filmean, alaba bat da protagonista nagusia. Aita Afganistanen eta Sobiet Batasunaren arteko gerran hil zitzaien, eta orain, talibanak Afganistanez jabetu direlarik, etxeko emakumeek alaba mutikoz mozorrotzea beste erremediorik ez dute etxera jateko zerbait ekartzeko. Adats beltz ederra moztuta, neskatoa mutiko bihurtuko dute.




MARTXOAREN 8AN ARTZABALEN EMANGO DEN FILMAREN KARTELA.

Pelikula benetako gertakari tragikoan oinarritua dago, eta Talibanen erregimenean jazotakoak salatzea du xede nagusi. Hala, zuzendariak errealismo handiz erakusten digu talibanek ezarritako izua.

### Kanape eta pintxo prestaketa, sukaldaritza tailerra Agerialden

Etumeta AEK euskaltegiak sukaldaritza tailerra antolatu du. Martxoaren 24an asteazkena izango da, arratsaldeko 19:00etan. 2 orduko iraupena izango du. Izena emateko deitu hona: 943 372 001.

### Hip hop eta funky dantza ikastaroan izena emateko aukera

Bake Epaitegi ondoko lokalean hip-hop eta funky dantza ikastaroak ematen dira. Klaseak asteazkenetan dira, 17:00etatik 19:00etara. Taldea osatzeko jendea behar da. 637 256 851.







# GAZI, GOZO, GEZA

## ETXEBIZITZA

- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegian ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- San Inazio kalean etxea salgai. Dena berritua eta hiru balkoi ditu, oso eguzkitsua. 686969112.
-Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landetxe bat saltzen da Alfaron (Errioxan). Astebukaerak eta oporraldietarako egokia. Terreno eta pistinarekin. Herritik 1,2 kilometrotara. 2 logela, egongela tximenearekin, sukaldea, komuna eta portxea. 675702428 (gauetan).
- Etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. Interesatuak deitu 20:00etatik aurrera 661568471.
- Gela bat alokairuan pertsona serio batentzat, pisu berri batean. 300 euro, gastuak aparte. Usurbil inguruan. 609 901 734 edo 943 575 788.
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitsua eta berritua. Interesatuak deitu: 637225620.
- Pisu bila nabil Usurbilen. Alokairuan nahi nuke. 664 885 737.
-95metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldaketak egiteko aukera asko. 638279184.
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailean. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Bordaberri 3 kalean etxe bat daukagu salgai. 676910638.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
-Santuenea 26an 60metro karratuko etxea daukagu salgai. 2 gela, sukaldea handia, etxeak kanpokaldera ematen du, gasa eta kalefazioa ditu. 200.000. 666539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.
-Lasarten apartamentu bat salgai, egoera onean. Erdigunean. Toki lasaia eta berritu berria. Bikote batentzat egokia. 657708866

## SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Volkswagen Touran bat salgai. 2005 urtean erosia, kilometro gutxi eta oso ondo zaindua, extra asko, gasolina. 14000 euro. 649435470
- Aprilia Chester R-125 motorra daukagu salgai. Egoera onean eta prezio interesgarria. 661618970
-Karabana bat salgai. Modelo zaharra da baina egoera oso onean dago. Prezio interesgarria. 646514494
-Mitsubishi L200 bat salgai. SS-AZ eta egoera onean. 646514494
- Mendiko terrenoak erosiko nituzke. Basoa ateratzeko edo basorik gabea ere bai. 943362237.
-Atxegalden 33 metro karratu dituen lokal bat alokatzen da. Sarrera egokia. 943373414. 280 euro hilean.
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metrotako altuera. 943361265.
-50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajean, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.
- Etxebeste kalean 44 m2-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.

## LANPOSTUAK

### Lan-eskaerak

- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziduna. 658107757
- Esperientziadun emakumea behar da goizez etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. Hiru orduz: goizeko zazpietatik hamarretara. 687 055 166.
- Astebukaeratan lan egiteko, zerbitzari moduan aritzeko pertsona bat behar dugu. 943 36 67 10.

### Lan-eskaintzak

- Urte asko herrian daramatzan emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak edota haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Ordutegi malgua. 687 348 223 edo 943 364 310.
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
-Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411
-Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 630438571
-Gizon bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko edo baserriko lanak egiteko. 662461568

- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Iñaki: 677 44 31 40.
-Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. Interesatuak deitu 656446835
- Pertsona helduak zaintzeko neska bat eskaintzen da. Esperientziduna. 606 800 837.
-Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
-Emakumea interna edo goiz zein arratsaldez orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
-Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608835033
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646717676.
-Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943368574.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620185927.
-Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685716774.
-Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630768325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
-Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
-Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

## BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Mugikor bat galdu da, Samsung markakoa. Tf: 636 39 32 37.
- 1,35 metroko ohe artikulatu berri bat daukat salgai 450 eurotan. 688803528.
-Wii kontsolaren softwarea aldatzen da segurtasunaren kopiak kargatu ahal izateko, DVDaren edo USBaren bidez txipik instalatzeko beharrik gabe. Kontsola ez da irekitzen eta horrela, garantia ez da galtzen, dena softwarearen bidez egiten da. 635729637
-Argazki zaharrak berritzen ditut. Bideoak montatzen ditut bai bideoarekin, bai argazkiekin DVD formatoan. 635729637
- Otsailaren 20an txamarra marroi bat galdu nuen Olarrondon. Aurkitu duenak deitu mesedez: 600768570.
1,35 metroko ohe artikulatu berri bat daukat salgai 450 eurotan. 688803528.
- Bideo-muntaiak egiten dituen pertsona bat behar dugu. 943 374061.
- 160 luzera x 30 zabalera x 77 altuerako kaoba koloreko komoda bat daukat prezio onean salgai. 636540788
- Otsailaren 3an belarritako bat galdu dut Usurbilen. Perla txuri bat dauka. Eskertuko dugu. 943365958
- Bi zilarrezko eraztun galdu ditut. Batek hiru delfin ditu eta besteak bat. Balio sentimental handikoak. 666177913
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
-Dorleta Kinkildegia traspasatzen da. 609099824.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikuilu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan. Telefono zenbakia: 616260451
-7 gazteko lagun taldea gara eta lokal bat alokairuan hartuko genuke, 200 bat euro. 606 101 980.
- Ostalaritzako makinaria, kafetegiko altzariak salgai; aulkiak, mahaiak, kafe-makina,... 607 389 570 (Mireia). istergo@hotmail.com
-Atxegalden 30 metro karratuko lokal bat alokatzen da (lehen Truke). 943 373 414.
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki)
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
-Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Etxebizitzen erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220925.



**Sara eta Maitane!** Zorionak zuen urtebetetzean. Martxoaren 2an bina urte egingo dituzue eta prest gaude ospatzeko. Muxu handi bat Lorea, amatxo, aitatxo eta senide guztien partez. Ondo pasa eta segi hain jatorrak izaten.



**Zorionak Janitz!** Otsailaren 25ean 3 urte bete dituzu. Txokolatezko muxutxuak etxekoen partez.



**Zorionak Ekaitz!** Martxoaren 3an 6 urte egiten dituzu. Besarkada eta muxu haundi bat familikoen partez!



**Zorionak Uxue!** Martxoaren 6an 3 urte beteko dituzu. Ondo pasa eta muxu potolo bat etxeko guztien partez. Zorionak zuri... zorionak beti; Ze ondo pasako dugun larunbateko ospakizunean!

Jaiotzak, Usurbilgo Bake Epaitegitik jasotakoak dira. Zorion-agurrak, hildakoak, oharrak... Ekarri edo bidaltzeko azken eguna: astearte, eguerdiko 12:00etan. erredakzioa@noaua.com

# Eskerrik asko
# Usurbil!



sanmarko
zero bikaina

# TXOTX!!


AIALDE BERRI
Tel.: 943 365 031
Mugikorra: 670 027 731
Santuenea


LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA
Urtarriletik apirilera
TXOTX GARAIA
Ostiral, larunbat eta igande
eguerdietan IREKITA
Astelehenetan ITXITA
Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hernani
Tel.: 943 55 58 46 Mugik.: 616 287 867


SAIZAR
Betiko Sagardoa
Kalezar Auzoa, 39 · USURBIL · Tel. 943 362 228
www.sidrassaizar.com


ELUTXETA
SAGARDOTEGIA · ERRETEGIA
Urte guztian irekita astelehena izan ezik.
Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ✆ 943 55 69 81


ERRETEGIA·NEKAZALTURISMOA
ARRATZAIN
TOLARE-SAGARDOTEGIA
Egunero irekia.
Arratzainzar Baserria
info@agroturismoarratzain.com
Telf: 943 36 66 63
20170 USURBIL


✆ 943 36 12 29
iruin
sagardotegia
Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL
www.iruinsagardotegia.com | www.astazaransagardoak.com


AGINAGA
Sagardotegia
Urte osoan txotxetik
Estrata kalea, 7
Aginaga auzoa, USURBIL
Tel. eta Faxa: 943 36 67 10
Tel.: 943 37 06 68
a.sagardotegia@aginagasagardotegia.com